

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4023

*2028/2018 EBAZPENA, apirilaren 30ekoa, Bilbao-Basurto ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Vicente Ortiz Pereda jauna aldi baterako izendatzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurto ESIko atalburu sanitario, lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.*

Bilbao-Basurto ESIko zuzendari gerentearen azaroaren 16ko 2380/2017 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurto ESIko Anestesiologia eta Bizkortzeko (Minaren Unitatea) atalburu sanitario lanpostua lehiaketa bidez betetzeko.

Balorazio Batzordeak kalifikazio-proposamena egin du aurkeztutako eskatzailearen proiektuari eta haren defentsari, merituei eta euskera-ezagutzari dagokienez; eta, horren ondorioz, izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Vicente Ortiz Pereda jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori bera izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurto ESIko Anestesiologia eta Bizkortzeko (Minaren Unitatea) atalburu sanitario.

Bat etorririk Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Vicente Ortiz Pereda jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurto ESIko atalburu sanitario izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterako izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluen hirugarren arau komunean xedatutakoarekin bat etorriz; eta 2018ko maiatzaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak, aipatutako epea amaitutakoan, lanpostua utziko du, egoera horren luzapena onartu ezik, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluen hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango da, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluen 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Bilbao-Basurto ESIko Zuzendaritza Medikoari eta Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinaraztea.

2018ko abuztuaren 3a, ostirala

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbao, 2018ko apirilaren 30a.

Bilbao-Basurto ESIko zuzendari gerentea,  
EDUARDO MARÍA MAIZ OLAZABALAGA.